

AURKEZPENA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.16548

Lan Harremanak aldizkariaren zenbaki honek bi atal ditu. Lehenengoa, Lan denboraren murrizketa. Langabezia murrizteko proposamena izenburutzat darman atal monografikoa da. Hasierako zati horretan, Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile talde batek egindako ikerketa lanaren fruitua aurkezten dugu (hitzaurrean ematen digute horren berri). Aldizkariaren bigarren partea Atal irekia da eta horretan, bi lan aurkezten ditugu. Lehenengoaren izenburua «Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta Enpleguko Pentsio-Funtsek Kapital Arriskuan egiten duten inbertsioa» da. Artikulu horretan, Rosa Maria Ahumadak eta Ainhoa Goinetxeak Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE) eta Enpleguko Pentsio-Funtsek Kapital Arriskuan egiten dituzten inbertsioak ikertzen dituzte. Bigarren artikularen izenburua «Factores que promocionan la falta de ética en las prácticas de producción y logística de la empresas transnacionales» da eta egileek, Arturo Luque eta Carmen de Pablos, ehungintza sektoreko enpresa transnazionalen etika eza eragiten duten faktoreak aurkezten dizkigute.